

12 0065-000003-25

8722



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



UNIVERSIDAD  
DE LA REPÚBLICA  
URUGUAY

**LANKIDETZA-HITZARMENA,  
URUGUAIKO ERREPUBLIKAKO  
UNIBERTSITATEA ETA ETXEPARE  
EUSKAL INSTITUTUAREN ARTEAN**

**CONVENIO DE COLABORACION ENTRE LA  
UNIVERSIDAD DE LA REPÚBLICA Y EL  
INSTITUTO VASCO ETXEPARE**

**BILDURIK**

**REUNIDOS**

Alde batetik, Irene Larraza Aizpurua Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria, helbidea: Tabakalera Eraikina, Andre Zigarrogileen plaza 1-3. Solairua, Donostia.

Doña Irene Larraza Aizpurua, Directora del Instituto Vasco Etxepare con domicilio en el Edificio Tabakalera, Plaza de las Cigarreras nº1-3. Planta, Donostia/San Sebastián.

Bestetik, Errepublikako Unibertsitatea (Uruguai), helbidea: Av. 18 de Julio 1824 11200 Montevideo, aurrerantzean Udelar, Héctor Cancela Bosi errektoreak ordezkaturik, erakunde horren izenean eta hura ordezkaturik, 1958ko urriaren 29ko 12.549 Lege

De otra parte, la Universidad de la República (Uruguay), con domicilio en Av. 18 de Julio 1824, 11200 Montevideo, en adelante Udelar, representada por el Rector Héctor Cancela Bosi, actuando en nombre y representación de esta institución, de conformidad con su Ley Orgánica 12.549, del 29 de octubre de 1958, quien delega para este acto la firma en el Presidente del Servicio de Relaciones Internacionales Gonzalo Vicci Gianotti según resolución 370/2025 de fecha 21 de julio de 2025, y Pablo Martinis Decano de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación.

Organikoaren arabera. Azken horrek Gonzalo Vicci Gianotti. Nazioarteko Harremanetarako Zerbitzuko presidenteari eskuordetzen dio gintza honetarako sinadura, 2025eko uztailaren 21eko 370/2025 Ebazpenaren arabera, eta Pablo Martinis Dekanoari, Giza Zientzien eta Hezkuntza Zientzien Fakultatekoa.

**PARTE HARTU DUTE**

**INTERVIENEN**

Lehendabizikoa Etxepare Euskal Institutuaren Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izendatzen duen 2018ko urtarrilaren 9ko 3/2018 Dekretuak (EHAAren 9 zkia, 2018ko urtarrilaren 12koa) eman zizkion ahalmenekin bat eta Etxepare Euskal Institutuaren antolaketa- eta jardura araudia onartzen duen 88/2008 Dekretuaren, maiatzaren 13koa, 18. artikulua xedatutakoarekin bat (EHAAko 177 zk., 2008ko ekainaren 20koa).

La primera, en nombre y representación del Instituto Vasco Etxepare, de conformidad a las facultades que le atribuye el Decreto 3/2018, del 9 de enero del 2018 (BOPV nº 9, del 12 de enero de 2018) y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 18 del Decreto 88/2008, de 13 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Instituto Vasco Etxepare (BOPV nº 177, de 20 de junio de 2008).

Bigarrenek, Errepublikako Unibertsitatearen izenean, Giza Zientzien eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea kide dena, honekin batera doan Bitarteko Errektorearen 1958ko urriaren 29ko 12.549 Lege Organikoaren eta 2025eko otsailaren 4ko 51/2025 Ebazpenaren arabera.

Los segundos, en nombre y representación de la Universidad de la República, de la que forma parte la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación, según La Ley Orgánica 12.549, del 29 de octubre de 1958 y resolución 51/2025 de fecha 4 de febrero de 2025 del Sr. Rector Interino que se adjunta.



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



#### ADIERAZI DUTE

Errepublikako Unibertsitatea, irakaskuntza, ikerkuntza eta hedapen funtzioak betez eta egiten duen gizarte lanarekin bat etorriz, baliabide propioekin kulturen garapenari ekarpena egin nahi dion erakundea dela; horien artean, euskara. Era berean, ikasleen trukea errazten duela atzerriko unibertsitateekin dituzten lankidetzak hitzarmenen aldetik.

Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzeko den apirilaren 20ko 3/2007 Legearen, eta Etxepare Euskal Institutua / Basque Instituteraren antolakuntza- eta jarduerara araudia onartzen duen maiatzaren Dekretuaren arabera, euskara eta euskal kultura, bere hizkuntza ofizialeko edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzeko, hedatzeko eta proiektatzeko eskumenak Etxepare Euskal Institutuari dagozkio.

Bi aldeek, izan nahi dituzten harreman instituzionalen baitan eta euskal hizkuntza, literatura eta kulturaren alorreko elkarlan pedagogiko eta ikerkuntzakoa finkatzeko, erabaki zuten unibertsitate horretan euskal hizkuntza eta kulturari buruzko irakurle- lanpostu bat ezartzea. Esperientzia horrek emaitza positiboa izan duenez, honen bitartez programari jarraipena eman nahi diote, ahaleginak bateratuz, hurrengo hiru ikasturteetan 2025, 2026 eta 2027 ere ezaguera horiek unibertsitate hartan sustatzen segitzeko.

#### CONSIDERANDO

Que la Universidad de la República es una institución que en el cumplimiento de sus funciones de enseñanza, investigación y extensión y de su labor social, desea contribuir al desarrollo de las diferentes culturas y lenguas, entre ellas el euskera y que también facilita el intercambio de estudiantes en el marco de convenios de colaboración con universidades extranjeras.

Que, de conformidad con la Ley 3/2007, de 20 de abril, de Creación y Regulación del Instituto Vasco Etxepare / Euskal Institutua / Basque Institute, y el Decreto por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute, corresponden al Instituto Vasco Etxepare las actuaciones relativas a la promoción, difusión y proyección, fuera de la Comunidad Autónoma Vasca, del euskera y de la cultura vasca en cualquiera de sus lenguas oficiales, manifestaciones, soportes, medios y formas de expresión.

Que las dos partes, en el marco de las relaciones institucionales que desean mantener y con el fin de establecer una colaboración pedagógica y de investigación en el ámbito de la lengua, la literatura y la cultura vasca, alcanzaron un acuerdo para el establecimiento de un lectorado de lengua y cultura vasca en esa Universidad. Valorada positivamente la experiencia, mediante el presente adquieren el compromiso de continuar dicho programa durante tres cursos académicos, los cursos 2025, 2026 y 2027.

En su virtud y aceptando las normas



Ondorioz, dagozkien eskumen eta prozedura arauak onartuta, alde guztiek dokumentu hau sinatzeko behar besteko gaitasun legezkoa elkarri aitortu diote. Hona

de competencia y procedimiento que les corresponden, todas las partes se reconocen la capacidad legal necesaria para suscribir el presente documento, que se registrá conforme a las siguientes:

### **KLAUSULAK**

#### **Lehenengoa.- Hitzarmenaren helburua.**

Errepublikako Unibertsitatearen eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko Lankidetza Hitzarmen honen helburua euskal hizkuntzaren eta kulturaren ezagutza euskararen eremura baino haratago eramatea da, beste herri batzuek gure kulturaren alderdirik esanguratsuenak ezagut ditzaten, eta dituzten ezagutza horiek sakontzeko modua izan dezaten.

#### **Bigarrena.- Egin beharreko jarduerak.**

Planteatutako lankidetza euskal hizkuntza eta kultura ikasketak egitea da Errepublikako Unibertsitateko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, baita gai horiekin lotutako beste jarduera batzuk garatzea, sustatzea eta zabaltzea ere; hala nola, mintegiak, hitzaldiak, jardunaldiak eta abarrekoak antolatzea.

Adierazitako jardueren barruan, egin beharreko lankidetzaren oinarritzko helburu gisa zehazten da Errepublikako Unibertsitateak euskara eta euskal kulturako irakurleen programari jarraipena ematea eta programa hori era egokian garatzea hiru ikasturtetan (2025, 2026 eta 2027).

### **CLÁUSULAS**

#### **Primera – Objeto del Convenio**

Es objeto del presente Convenio la Colaboración entre la Universidad de la República y el Instituto Vasco Etxepare para el impulso del conocimiento de la lengua y la cultura vascas más allá de su propio ámbito para que otros pueblos puedan extender y ahondar en el conocimiento de los aspectos más significativos de esta cultura.

#### **Segunda – Actuaciones a desarrollar**

La colaboración planteada se configurará a través de la realización de estudios de euskera y cultura vasca en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad de la República, así como el desarrollo, promoción y difusión en la misma de otras actividades relacionadas con dichas materias, tales como la organización de seminarios, conferencias y jornadas, entre otras.

Dentro de las actuaciones señaladas, se determina como objetivo fundamental de la colaboración a desarrollar que la Universidad de la República dé continuidad al programa de lectorado en euskera y cultura vasca y lo desarrolle satisfactoriamente en la Universidad durante 3 años académicos (cursos 2025, 2026 y 2027).



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



Datuak edota komunikazioak partekatzea edo trukatzea eskatzen duten jarduerak egin ahal izateko, Errepublikako Unibertsitateak Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen bidez egingo du eta Etxepare Euskal Institutuak bere izenean.

#### **Hirugarrena.- Euskara sustatzeko neurriak.**

I. Errepublikako Unibertsitateak, aurreko klausulak adierazitakoarekin bat, ondoko jarduerak egiten jarraitzeko konpromisoa hartuko du:

- a) Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Atzerriko Hizkuntzen Zentroaren bitartez, euskal hizkuntza eta kultura irakurle postua sustatzea. Irakurlearen lana, batik bat, diziplina hura irakastea izango da, baita sustapenerako eta promoziorako jarduerak egitea ere, euskararen ezagutza zabaltze aldera.
- b) Irakurlea aukeratuko du, Etxepare Euskal Institutuak kudeatuko prozesu baten bidez, zeinak publizitatea, ber- dintasuna, meritua eta kapazitatea bermatuko dituen prozesu baten bi- dez. Baldintzak deialdian ezarriko dira, bi aldeek hala adostuta. Prozesu horren ondoren jasotako aurre hauta- gaien artean posturako egokien deri- tzon pertsona aukeratuko du. Edonola ere, lanpostuaz jabetzeko beharrez- koa den titulazioa izan beharko du pertsona horrek eta Unibertsitatearen oniritzia eduki beharko du.
- c) Euskararen ezagutza sustatzeko egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartzea, ikuspegi akademikotik hori egin daitekeen neurrian, unibertsitatean

Para el desarrollo de las actuaciones pertinentes que requieran el intercambio de datos o comunicaciones, la Universidad de la República actuará por medio de la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación - y el Instituto Vasco Etxepare en su propio nombre.

#### **Tercera – Medidas tendentes al impulso del euskera**

I. Conforme a lo señalado en la cláusula anterior, la Universidad de la República asume el compromiso de continuar efectuando las siguientes actuaciones:

- a) Impulsar en la Facultad de Humanidades y ciencias de la Educación, a través de su Centro de Lenguas Extranjeras, la figura del Lectorado de euskera y cultura vasca que se ocupará fundamentalmente de la enseñanza de estas y de llevar a cabo actividades de promoción y difusión encaminadas a promover su conocimiento.
- b) Seleccionar al lector a través de un proceso gestionado por el Instituto Vasco Etxepare que garantice la igualdad, el mérito y la publicidad. Los requisitos se fijaran en la convocatoria, tras acuerdo de ambas partes. De entre los candidatos recibidos tras este proceso, elegirá a la persona que considere más idónea para el puesto. El lector, en todo caso, ostentará las competencias académicas necesarias para hacerse cargo del puesto – para ello y tendrá el visto bueno de la Universidad.
- c) Adoptar las medidas que considere oportunas tendientes a incorporar el conocimiento del euskera, en la medida de que ello fuera posible desde el punto de vista académico, en las diferentes



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



ematen dituzten ikasketetan.

a) Atzerriko Hizkuntzen Zentroaren bidez, beharrezkoa den ekipamendua (ikasgela, ikastaroaren iragarpena programan, ordenagailua eta ahalik eta ondoen hornitutako lan-lekua) jarriko du irakasle bisitariaren esku. Hori guztia Fakultateak dituen baliabideen arabera egingo da. Halaber, beharrezkoak diren material didaktikoen hornikuntza berritu behar du (tonerra, papera eta abar.) beti ere Unibertsitatean euskara irakastera bideratzen direnean.

b) Unibertsitatearen web orrian euskara eta euskal kulturako eskolen berri emango du eta ikastaro horiek Etxepare Euskal Institutuaren babesa dutela adieraziko du, Etxepare Euskal Institutuaren logoaren bidez, besteak beste.

c) Ikasturte amaieran irakurleak irakurletzan egindako ekintzen xehetasunak agertzen dituen urteroko memoria aurkeztuko du (emandako klaseak, matrikulazioa, egindako ekintza kulturalak eta beraietara joandako jendea...), irakurleak eginga izango da. Koordinatzaileak

programa akademikoari buruzko eta irakurlearen lan jardunari buruzko balorazioa gehitu behar du memorian. Memoria hau irakurlearen koordinatzaileak sinatuko du, dokumentuarekin adostasuna adierazteko.

carreras que se imparten o que se constituyan.

a) A través de su Centro de Lenguas Extranjeras pondrá a disposición del/a lector/a el equipamiento necesario (aula, anuncio de los cursos en el programa, acceso a un ordenador y un lugar de trabajo lo mejor provisto posible); todo ello en la medida de las posibilidades de la Facultad. Asimismo, garantizará la provisión de los materiales didácticos que sean necesarios (tóner, papel, etc.) siempre que estos se aporten a la enseñanza del euskera en la Universidad.

b) Anunciará en su página web las clases de lengua y cultura vasca y señalará que esas clases cuentan con el apoyo del Instituto Vasco Etxepare, con la inserción de su logo junto al anuncio entre otros detalles.

c) Al final del curso el lector presentará una memoria anual en la que se detallarán las actividades realizadas en el lectorado (clases impartidas, matriculación, actividades culturales realizadas y gente que ha acudido a ellas...), que será elaborada por el lector. El coordinador deberá incluir en la memoria una valoración del programa académico y del trabajo del lector. Esta memoria será firmada por el coordinador del lector para mostrar su conformidad con el documento.



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



II.- Etxepare Euskal Institutuak ondoko ekarpenak egiten jarraitzeko konpromisoa hartu du Proiektua egin ahal izateko:

- a) Berdintasuna, meritua eta publizitatea bermatuko dituen prozesua kudeatu ondoren, puntuazio hurrenkera jarraituaz, lehen hiru hautagaiak bidaliko ditu unibertsitatara. Honekin batera aurre hautaketa egiteko irizpideak ere bidaliko dizkio, unibertsitateak erabakia hartu dezan.  
Pertsona horiek beti izango dituzte postu horren ardura hartzeko beharrezko gaitasun akademiko eta linguistikoak.
- b) Aholkularitza didaktikoa emango dio eta beharrezko material eta baliabide didaktiko, linguistiko eta kulturalak emango dizkio euskara irakurleari egin behar dituen jarduerak egiten laguntze aldera.
- c) Diru-ekarpena egingo du irakurleen programa mantentzeko, Etxepare Euskal Institutuaren aurrekontuetan urtero era horretako jardueretarako aurreikusitako diru-izendapen egokien barruan.
- d) Etxepare Euskal Institutuak unibertsitaterako joan-etorri bateko bidaia-gastuak bakarrik hartuko ditu bere gain, beti ere irakurlea Montevideotik kanpo bizi den kasuan.

II.- El Instituto Vasco Etxepare asume el compromiso de continuar efectuando las siguientes aportaciones para el desarrollo del Proyecto:

- a) Una vez gestionado un proceso que garantice la igualdad, el mérito y la publicidad, siguiendo el orden de puntuación, enviará a la universidad a los tres primeros candidatos. Asimismo le enviará los criterios de preselección para que la universidad tome la decisión correspondiente. Estas personas, en todo caso ostentarán las competencias académicas y lingüísticas necesarias para hacerse cargo del puesto.
- b) Prestar asesoramiento didáctico y ceder el material y los recursos didácticos, lingüísticos y de interés cultural necesarios para contribuir al desarrollo de la actividad docente que es necesario llevar a cabo por el lectorado de euskera.
- c) Hacer la aportación económica necesaria para contribuir al mantenimiento del lectorado, dentro de las consignaciones presupuestarias conformes y adecuadas al destino del gasto que anualmente se prevean en los presupuestos del Instituto Vasco Etxepare.
- d) El Instituto Vasco Etxepare únicamente se hará cargo de los gastos de un viaje de ida y vuelta a la universidad de destino, siempre que el/la lector/a resida fuera de Montevideo.





**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**



UNIVERSIDAD  
DE LA REPUBLICA  
URUGUAY

Hitzarmen honen indarraldirako Etxepare Euskal Institutuak Errepublikaren Unibertsitateari egingo dion diru-ekarpenari dagokionez, honen arabera ordainduko da:

2025 ikasturtea: 25.743,37€

2026 eta 2027 urteei dagokionez, urtero soldataren igoera egoten denez, unibertsitateak kopurua eguneratzean, Institutuaren aldetik egin beharreko diru-ekarpen hori eguneratu eta eranskina sinatuko da.

-2025 ikasturterako aurreikusitako kopurua, hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunen barruan ordainduko da.

-2026 urteko kopuruaren %100 2026ko apirilaren 30a baino lehen ordainduko da, betiere aurreko ikasturteko ekarpenak justifikatu ondoren.

-2027 urteko kopuruaren %100 2027ko apirilaren 30a baino lehen ordainduko da, betiere aurreko ikasturteko ekarpenak justifikatu ondoren.

-Ordainketa FHCE-UDELARRI dagokion kontura transferentzia eginda gauzatuko da.

| Helburua             | 2025           | 2026 | 2027 |
|----------------------|----------------|------|------|
| Irakurlearen soldata | €              | €    | €    |
| 10% Overhead         | €              | €    | €    |
| Guztira              | 25.743,37<br>€ | €    | €    |

Para el periodo de vigencia de este Convenio, en cuanto a la aportación económica del Instituto Vasco Etxepare a la Universidad de la Republica se hará de la siguiente manera:

Curso 2025: 25.743,37€

Respecto a los años 2026 y 2027, debido a que cada año el salario se incrementa, una vez la Universidad actualice dicha cantidad, se actualizará la aportación que el Instituto debería realizar, firmando el anexo correspondiente.

-Para el año 2025, se pagará la totalidad de la anualidad dentro de los treinta (30) días posteriores a la celebración del presente Convenio.

-Para el año 2026, el 100% de la anualidad se hará efectiva, antes del día 30 de abril de 2026, una vez rendidas las cuentas de las aportaciones del curso anterior.

-Para el año 2027, el 100% de la anualidad se hará efectiva, antes del día 30 de abril de 2027, una vez rendidas las cuentas de las aportaciones del curso anterior.

-El pago se realizará mediante transferencia o depósito bancario en la cuenta de la FHCE- UDELAR que se indique.

| Destino                | 2025           | 2026 | 2027 |
|------------------------|----------------|------|------|
| Retribución del lector | €              | €    | €    |
| 10% Overhead           | €              | €    | €    |
| Total                  | 25.743,37<br>€ | €    | €    |



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



UNIVERSIDAD  
DE LA REPÚBLICA  
URUGUAY

-Irakurle postuaren titularrarentzat (G3 mailako, 30 ordutarako irakaslearentzat) taulan ezarrita dagoen kopurua (dagozkion zama sozialak, osasun aseguruak, gabonsaria eta transferentzia gastuak barne)

-%10 Overhead kontzeptuan.

Ordaindutako kopuruen justifikazioa honela egingo da:

-Justifikazioan soldatari eta overhead kontzeptuei dagokion zenbatekoak jasoko dira.

- 2026tik aurrera, urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen, Errepublikako Unibertsitateak aurreko urtean jasotako partidaren exekuzioari dagokion dokumentazioa bidali beharko du, aurreko puntuan zehaztutako destinoetarako.

#### Laugarrena.- Irakurlea

Irakurleak honako baldintza hauen arabera bete beharko du bere lana:

- a) Dokumentu honetan ezartzen zaizkion betebeharrak egiteko Errepublikako Unibertsitateak eskatzen duen titulazioa eta gaitasunak eduki beharko ditu. Horretarako, irakurleak hirugarren mailako edo unibertsitateko titulua izan beharko du. Halaber, Euskarazko C1 maila egiaztatua izan beharko du (edo

-La cantidad de euros establecida en el cuadro para la retribución del titular del lectorado, en categoría de G3 a 30 horas de dedicación (incluyen las cargas sociales, seguro de salud, aguinaldo y gastos por transferencia).

-10% por concepto de Overhead;

La rendición de la anualidad recibida se realizará de la siguiente forma:

-La rendición se realizará por la totalidad de las cifras correspondientes al concepto sueldo y overhead.

-Antes del 30 de abril de cada año a partir del 2026, la Universidad de la República deberá remitir la documentación correspondiente a la ejecución de la partida recibida el año anterior para los destinos especificados en el punto anterior.

#### Cuarta – El/a lector/a

Las personas que ejerzan los cometidos del Lectorado señalado desarrollarán su labor bajo los siguientes parámetros:

- a) Deberán ostentar la titulación y competencias exigidas por la Universidad de la República para poder desempeñar los cometidos que le vienen asignados de conformidad a este documento. A tal efecto, deberán poseer grado terciario o universitario. Además deberán poseer nivel C1 de euskera acreditado (o título





ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



Euskarazko EGA titulua). Lehentasuna izango du unibertsitate mailan euskara irakasteko eskarmentua duenak. Baloratuko da euskarari buruzko ikerketetan edo zabaltze zereginetan esperientzia izatea (ingurunearekiko jarduerak). Gainera, irakurle lana hastean graduondoko ikasketak egiten aritzea ere baloratuko da, betiere, hitzarmen honen helburuekin bat datozen jakintza arloetan.

- b) Irakasleek bere egitekoari egokitutako obligazioak bete beharko ditu, baita Unibertsitateak berak egozten dizkionak ere. Era berean, trebakuntzarekin jarraitu ahal izango du.
- c) Astean 30 eskola-ordu emango dituzte kurtso bakoitzeko Errepublikako Unibertsitateko Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, dagozkion agintaritza akademikoekin bat etorrira.
- d) Era berean, euskara eta euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko jarduera osagarriak bultzatuko dituzte, besteak beste, Etxeparek sustatzen duen ekintzetarako barne-deialdiaren bitartez"
- e) Euskara eta Euskal Kulturako irakaslea izateak ez dakar inolako lan harremanik edo lotura administratiborik Etxepare Euskal Institutuarekin eta, ondorioz, Institutu honek ez du bere gain hartzen irakasleak unibertsitatearekin duen kontratutik

EGA de lengua vasca). Se priorizará poseer experiencia en enseñanza de lengua vasca a nivel universitario. Se valorará poseer antecedentes en investigación sobre lengua vasca o en tareas de extensión (actividades con el medio). Además se valorará que al inicio del lectorado estén realizando estudios de posgrado dentro de áreas de conocimiento acordes con los objetivos de este convenio.

- b) Las personas que desempeñen el lectorado deberán cumplir las obligaciones que le correspondan de acuerdo con su función y demás obligaciones que indique la propia Universidad, y podrá continuar su formación.
- c) Impartirán clases de euskera y cultura vasca en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad de la República, por un total de 30 horas semanales por curso, de acuerdo con las autoridades académicas correspondientes.
- d) Impulsarán actividades complementarias para promover y difundir el euskera y la cultura vasca, entre otras, a través de la convocatoria interna de acciones que promueve Etxepare.
- e) La condición de docente de Estudios de Lengua y Cultura Vasca no implica ningún tipo de vinculación ni laboral ni administrativa con el Instituto Vasco Etxepare y, en consecuencia, este Instituto no asume ninguna responsabilidad derivada de la relación contractual del profesor o profesora con



ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA



eratorritako erantzukizunik, ez eta irakurlearen ekintzetatik eratorritakorik ere, batez ere bere nkizunak betetzean eragin ditzakeen kalteei dagokienean.

- f) Hautatutako pertsona (irakurlea) gehienez ere lau ikasturtez izango da irakurle postuan. Salbuespen gisa, eta betiere Etxepare Euskal Institutuak eta unibertsitateak euskal ikasketen sendotze estrategiarako egokitzat adostutako irizpide eta prozeduraz, aztertu ahal izango da behin-behinekoa izango den luzatzeko aukera. Luzapen horren gehienezko epea urtebetekoa izango da edo unibertsitatearekin euskal ikasketen indartzeko estrategiarako adostutako trantsizio epea.

la Universidad de la República de adscripción ni derivada de su actuación, especialmente por los daños y perjuicios que puedan sobrevenir durante el desarrollo de sus funciones.

- f) La persona seleccionada (lector o lectora) ocupará plaza de lector o lectora durante un periodo no superior a cuatro cursos. Excepcionalmente, por el criterio y procedimiento que resulte adecuado para la estrategia de consolidación de las enseñanzas vascas por parte del Instituto Vasco Etxepare y la universidad, podrá analizarse la posibilidad de prórroga de la misma con carácter provisional. El plazo máximo de esta prórroga será de un año o el periodo de transición acordado con la universidad para la estrategia de refuerzo de los estudios vascos.

#### **Bosgarrena.- Irakurlearen koordinazio akademikoa**

Irakurlearen ardura akademikoa Atzerriko Hizkuntzen Zentroko zuzendaritzarena izango da.

Irakasleak eta zuzendaritzak elkarrekin egin beharko dute lan helburuak zehazteko eta programarekin lotutako erabakiak hartzeko. Zuzendaritzak irakaslearen aholkulari lanak egingo ditu, azken honen irakasle lana aztertuko du eta behar diren oharra egingo dizkio.

Atzerriko Hizkuntzen Zentroaren zuzendaritzak programa bat sortzera bultzatuko du irakaslea, non irakasteko filosofia, ikasketa planaren diseinua, helburuak, ikasgai motak, ikasleek egindako lanaren laginak (aukeratu izanaren arrazoiak azaltzen dituzten oharrekin) eta hausnarketa eztaba daezinak sartuko diren.

#### **Quinta.- La coordinación académica del/a lector/a**

La responsabilidad académica del/a lector/a recaerá en la dirección del Centro de Lenguas Extranjeras.

El/a lector/a y la dirección trabajarán conjuntamente para concretar los objetivos y tomar decisiones sobre el programa. La dirección actuará como mentora del profesor o profesora, analizará la docencia de este último y le indicará sus observaciones.

La dirección del Centro de Lenguas Extranjeras animará al profesor o profesora a crear un portafolio donde incluya su filosofía docente, diseño del plan de estudios, objetivos, tipos de lecciones, muestras del trabajo realizado por los estudiantes con notas que expongan los motivos de su selección, y reflexiones concluyentes.



**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**



Zuzendaritzak garapen kurrikularrekin, pedagogiarekin, materialen garapenarekin, berrikuntza teknologikoekin, klasea zuzentzearekin, probekin eta garapen profesionalarekin lotutako jarduerak zuzenduko ditu. Gainera, irakaslea eta Errepublikako unibertsitatearen artean bitarteko lanak egingo ditu.

#### **Seigarrena.-Genero berdintasuna.**

Genero berdintasuna oinarritzko irizpidea izango da hitzarmen honen bitartez garatzen diren jarduerak guztietan. Horrenbestez, ez da diskriminazio elementurik erabiliko, ez hizkuntzan, ez iruditan. Halaber, hitzarmen honen xedea betetzerakoan, ekintzetako lan-taldeetan UDELAR-ek eta Etxepare Euskal Institutuak parekotasuna bermatuko dute, eta lan larroen artean generoaren aldagaia aintzat hartuko da.

#### **Zazpigarrena. Hizkuntza aniztasuna.**

Hizkuntza aniztasunaren sustapena hitzarmen honen bitartez garatzen diren jardueretan irizpide garrantzitsua izango da. Beraz, ez da hizkuntzen trataeran bazterkeriarik egingo, ez hizkuntzen, ez irudien erabileran. Halaber, hitzarmen honen helburuak aurrera ematerakoan UDELAR-ek eta Etxepare Euskal Institutuak saiakera berezia egingo dute hizkuntza ez hegemonikoen, bereziki euskararen, ikusgaitasuna bermatzeko eta hizkuntza aniztasuna irakurletzako ekintzak diseinatzerakoan irizpide estrategikoa izango da.

#### **Zortzigarrena.- Jarraipen Batzordea**

1.- Hitzarmenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrolatzeko, Jarraipen Batzorde bat osatuko da.

La dirección guiará las actividades relacionadas con el desarrollo curricular, la pedagogía, el desarrollo de los materiales, las innovaciones tecnológicas, la dirección de la clase, las pruebas y las actividades de desarrollo profesional. Además hará las tareas de intermediación entre el/a lector/a y la Universidad de la República.

#### **Sexta – Igualdad de género.**

La igualdad de género será un criterio básico en todas las actividades que se desarrollen a través de este convenio. Por lo tanto, no se utilizarán elementos de discriminación ni en el lenguaje ni en las imágenes. Asimismo, en el cumplimiento del objeto del presente convenio, en los grupos de trabajo de las acciones se garantizará la paridad entre UDELAR y el Instituto Vasco Etxepare, teniendo en cuenta la variable de género entre las líneas de trabajo.

#### **Séptima.-Diversidad lingüística.**

La promoción de la diversidad lingüística será un criterio relevante en las actividades que se desarrollen a través de este convenio. Por lo tanto, no habrá discriminación en el tratamiento de las lenguas, ni en el uso de las lenguas ni de las imágenes. Asimismo, en el desarrollo de los objetivos del presente convenio, UDELAR y el Instituto Vasco Etxepare realizarán un especial esfuerzo para garantizar la visibilidad de las lenguas no hegemónicas, especialmente del euskera, y la diversidad lingüística será un criterio estratégico en el diseño de las acciones de lectorado.

#### **Octava.- Comisión de Seguimiento**

1.- Para el seguimiento, vigilancia y control del Convenio y de los compromisos adquiridos por los



**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**



2.- Honako kide hauek izango ditu Jarraipen Batzorde horrek:

- a) Unibertsitateko ordezkari bat.
- b) Etxepare Euskal Institutuko Euskara sustatzeko eta hedatzeko zuzendaria, edo horrek izendatutako ordezkari pertsona.

Jarraipen Batzordea eratzeko unean, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da. Orekatutzat joko da, bi sexuetako pertsonak ordezkaturik daudenean.

#### **Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia**

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2025, 2026 eta 2027ko ikasturteetara arte egongo da indarrean.

#### **Hamargarrena.- Iraungitzea.**

Hitzartutako epea amaitzen denean iraungiko da hitzarmena. Horretaz gain, Etxepare Euskal Institutuak hitzarmen hau sinatzean bere gain hartutako konpromisoak aurre egiteko aurrekontu-baliabiderik ez izateagatik edo alderdietako edozeinek salatuta ere iraungi ahal izango da. Horretarako, amaitutzat jo baino gutxienez bi hilabete lehenago formalki jakinarazi beharko dio beste alderdiari.

Salaketak ez du eraginik izango burutzen ari diren programa eta proiektuetan.

Firmantes se constituirá una Comisión de Seguimiento.

2.- Esta Comisión de Seguimiento estará compuesta por los siguientes miembros:

- a) Un representante de la Universidad de la República.
- b) La persona titular de la Dirección de Promoción y Difusión del Euskera y la Cultura Vasca del Instituto Vasco Etxepare o persona en quien delegue.

En el momento de la constitución de la Comisión de Seguimiento se garantizará la presencia equilibrada de mujeres y hombres. Se considerará equilibrada cuando estén representadas las personas de ambos sexos.

#### **Novena.- Vigencia del convenio**

Este Convenio entrará en vigencia el día de su firma y extenderá su vigencia a los cursos a dictarse en los años 2025, 2026 y 2027.

#### **Décima.- Extinción.**

Además de la extinción por el vencimiento del plazo convenido, el presente Convenio podrá resolverse por falta de disponibilidad presupuestaria por parte del Instituto Vasco Etxepare para hacer frente a las obligaciones asumidas mediante la firma de este convenio o por denuncia de cualquiera de las partes, que deberá ser comunicada formalmente a las otras comparecientes con una antelación mínima de dos meses a su efectividad. La denuncia no afectará los programas y proyectos en curso de ejecución.



**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**



### **Hamaikagarrena. - Hitzarmena ez betetzea**

Zehaztutako obligazioak edota beste xedapen batek orokorrean ezinbestekotzat ezartzen duen beste edozein baldintza Errepublikako Unibertsitateak bete ezean, Etxepare Euskal Institutuari itzuli beharko zaizkio jasotako dirua eta horren legezko korrituak.

Etxepare Euskal Institutuak zehaztutakoa betetzen ez badu, Errepublikako Unibertsitateak hitzarmen hau salatu ahal izango du eta eskubidea izango du hitzarmen honetan salaketa egun arte konprometituta dauden kopuruak jasotzeko.

Era berean, alderdiek beren gain hartutako betebeharrak ez betetzeak, hitzarmena indargabetzea ekar dezake.

### **Hamabigarrena. Datuen babesa**

Sinatzaileek konpromisoa hartzen dute erabilitako datu pertsonalen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzeko, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa, eta 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduan eta datu horien zirkulazio askean babesteari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, bai eta hura ordeztu dezakeen beste edozein araudi ere.

Era berean, aldeek Legearen xedapenak errespetatzeko konpromisoa hartzen dute Uruguako Ekialdeko Errepublikako 18.331 zenbakia (DATU PERTSONALEN BABES LEGEA)

### **Undécima.-Incumplimiento del Convenio**

El incumplimiento de las obligaciones señaladas por parte de la Universidad de la República, así como de cualquier otro supuesto de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general otra disposición, implicará la obligación de devolver al Institut Vasco Etxepare las aportaciones económicas recibidas y los intereses correspondientes.

En el caso de incumplimiento por parte del Instituto Vasco Etxepare, la Universidad de la República podrá denunciar este convenio y, de recibir las cantidades acordadas en el convenio hasta el día de la denuncia.

Asimismo, el incumplimiento de las obligaciones asumidas por las partes podrá dar lugar a la resolución del convenio.

### **Duodécima.- Protección de datos**

Los firmantes se comprometen a garantizar la seguridad y la privacidad de los datos personales utilizados mediante la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en el tratamiento de datos personales y en la libre circulación de estos datos, por el que se deroga la Directiva 95/46/CE, así como cualquier otra normativa que pueda sustituirla.

Asimismo, las partes se obligan a respetar las disposiciones de la Ley N° 18.331 de la República Oriental del Uruguay (LEY DE PROTECCION DE DATOS PERSONALES)



**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**



**UNIVERSIDAD  
DE LA REPÚBLICA  
URUGUAY**

**Hamairugarrena.  
Erreklamazioak, eztabaidak eta  
arbitrajea**

Hitzarmen hau betetzerakoan sor litezkeen interpretazio-edo ezarpen-auziak Jarraipen Batzordeak konponduko ditu. Aldeetako edozeinek besteari hitzarmena aldatzeko eska diezaioke.

Desadostasuna ezin bada konpondu, hiru arbitrok osatutako arbitraje-panel baten esku uztea erabaki dute alderdiek (alde bakoitzak izendatutako arbitro bat eta ados jarrita aukeratutako bat).

Hitzartutakoarekin adostasuna adierazteko, dokumentuaren bi ale berdin izenpetzen dira ondorio bakarrerako, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania).

Bi hizkuntza bertsioen artean eztabaidaren bat egonez gero, gaztelaniazkoa gailenduko litzateke.

**Las Decimotercera. Reclamaciones,  
controversias y arbitraje**

Las cuestiones de interpretación o aplicación que puedan surgir en la ejecución del presente Convenio serán resueltas por la Comisión de Seguimiento. Cualquiera de las partes podrá solicitar a la otra la modificación del convenio.

En el caso, de que el desacuerdo no pudiera resolverse, las partes acuerdan someter la cuestión a un panel de arbitraje compuesto por tres árbitros (un árbitro designado por cada parte y uno elegido por mutuo acuerdo).

En prueba de conformidad se suscriben dos ejemplares de este documento, de un mismo tenor y a un solo efecto, en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (euskera y castellano).

En caso de disputa entre las dos versiones lingüísticas prevalecerá la versión en castellano.

**Irene Larraza Aizpurua Etxepare Euskal  
Institutuko zuzendaria**

**Directora Instituto Vasco Etxepare**

**IRENE  
LARRAZA  
AIZPURUA**

Firmado digitalmente  
por IRENE LARRAZA  
AIZPURUA  
Fecha: 2025.09.29  
11:36:22 +02'00'

**Gonzalo Vici Gianotti  
Presidente del Servicio de Relaciones Internacionales  
Universidad de la República  
Errepublikako Unibertsitateko Nazioarteko  
Harremanen Zerbitzuko presidentea**

Firmado digitalmente por: CN=GONZALO  
VICCI GIANOTTI,  
SERIALNUMBER=DNI18570784, C=UY  
Fecha: 03/10/2025 13:40:09 -0300

**Dr. Pablo Martinis  
Decano Facultad de Humanidades y Ciencias de la  
Educación  
Universidad de la República  
Gizarte Zientzien eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko  
Dekanoa**

**PABLO  
EDUARDO  
MARTINIS  
LÓPEZ**

Firmado  
digitalmente por  
PABLO EDUARDO  
MARTINIS LÓPEZ  
Fecha: 2025.10.06  
16:04:28 -03'00'